



# BANDOA

## Nafarroako TDT seinalearen kanaleen kokapen-aldaketak egingo ditu

Nafarroako TDT seinalearen operadoreek [dibidendu digitala](#)leko prozesuak eskatutako telebista pribatuko (Estatukoa eta autonomikoa) kanaleen kokapen-aldaketak egingo dituzte datorren asteazkenean, azaroak 12, Aralarko San Migelgo (Arakil, Barranca, Basaburua eta Leitzarango ibarreko 49 udalerriri ematen die zerbitzua) eta Yerga Mendiko (Nafarroako hegoaldeko 32 udalerriri) igorle zentroetan.

Guztira, udalerriri horietan egindako TDT kanaleen aldaketak 92.787 nafarri eragingo die (70.202 Yerga Mendiagatik eta 22.585 Aralarko San Migelgatik).

Beraz, 81 udalerriri horietan Navarra Televisiónen seinalea hartzen jarraitzeko beharrezkoa izango da [telebista birsintonizatzea](#) asteazken bertan, azaroak 12.

Gainera, kokapen berriari TDT kanalak ikusteko beren [antenak egokitzea beharrezkoa den komunitateetako eraikin](#)etan (Yerga Mendiaren estaldura-eremuan errolatutako 2.985 etxebizitza komunitario dago eta San Migelgoan, 1.408) eta antenistek oraindik jardun ez duten eraikinetan, ezingo da Navarra Televisión sintonizatu profesional batekin antena egokitzen duen arte; beraz, ezinbestekoa da higiezin horietako bizilagunek beren komunitateko administratzaileei eskatzea antenista batekin ahalegin eta bizkorren harremanetan jar dadila. Garrantzitsua da jakitea Industria Ministerioak [antenista profesionalak egindako lan horiek diruz laguntzen dituela](#).

Gogoratu behar da, *dibidendu digitala* Espainiako Gobernuak sustatutako prozesu bat dela TDTko kanalak gaur arte hartzen duten tarte txikiago batean birrantola daitezkeen; horren helburua espazio erradioelektrikoa askatzea da telefonia mugikorreko 4G teknologia berriak erabili ahal dezan.

Etxarri Aranatzen, 2014ko azaroaren 12an  
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa

